

Frankismo berantiarra eta lehenengo estatu demokratikoa jarduera armatuaren aurka (1968-1979): jarraipenak eta aldaketak

Alexander Uriarte Cuadrado
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Frankismoaren ondoren, demokratikotzat hartu ziren lehenengo hauteskundeak egin ziren 1977ko ekainean. Eratutako lehenengo estatu demokratikoak kudeatu behar izan zuen frankismoak herentzian utzitako jarduera armatuaren arazoa. Emandako erantzuna enfrentamenduarena izan zen; hain zuzen, erregimen diktatorialak emandako berdintsua. Lan honetan, gainera bada ere, frankismo berantiarraren diktadurak zein geroko estatu demokratikoak erabili zituzten zenbait jardunbide eta diskurtso argituko dira, baita horietan izandako jarraipenak eta aldaketak ere trantsizioaren garai hartan.

GAKO-HITZAK: Frankismo berantiarra · Estatu demokratikoa · Jarduera armatua.

Late Francoism and the first democratic state against armed practice (1969-1979): continuities and changes.

After the elections in June 1977, considered to be the first democratic elections in post-Francoist time, the first democratic state had to deal with the problem of armed practice, passed down from late-Francoist regime. The strategy used, just like the one used during the dictatorial regime, was confrontation. This work, even superficially, will shed light on some of the practices and discourses used by the late Francoism dictatorship and later democratic state, as well as the continuations and changes that took place in them during the transition period.

KEY WORDS: Late Francoism · Democratic state · Armed practice.

1. Sarrera

Berdin du zein den eredia edo unea, edozein estatuk «lurralde-esparru jakin batean —eta lurralde bat izatea da hain zuzen ere haren ezaugarrietako bat— legezko indarkeriaren monopolioa beretzat (arrakastaz) eskatzen du». (Weber, 2007: 58). Xede horrekin, estatuak jardunbide eta diskurtso zehatzak erabiltzen dituzte. Estatuaren izaeraren arabera, erabilitako jardunbideak leunagoak edo zorrotzagoak izan daitezke, eta ekintza horiek legitimatzen dituen diskurtsoari etengabe edo noizbehinka heldu ahal zaio. Batez ere, erregimen demokratikoei komeni zaie erabilitako indarkeria politikoaren legitimazioari arreta eskaintzea (Weber, d. g.; Vézina, 2014)¹, eta, are gehiago, erregimen hori trantsizio-prozesuan badago —erregimen diktatorialek demokratikora—. Ángeles González-Fernández (2019: 136) egileak honela azaltzen du:

Aldaketa politikoan, [demokrazia baten] oinarritzko egituren —sistema judiziala, indar armatuak zein aparatu administratiboa (bere maila guztietan)— ohiko funtzionamenduak eta botere koertzitiboaren monopolioa mantentzeko ahalmenak zerikusi handia dute; ziurgabetasuna nagusi den ezohiko egoera batean, hutsune instituzionala izateko arriskua baztertzan dutelako eta prozesua ordenatua zein kontrolatua izaten laguntzen dutelako.

Neurri handi batez, Estatuaren indarkeria politikoa legitimatzen da Estatuarena ez den indarkeria politikoari zilegitasuna kentzen dion diskurtsoaren bidez —Europako testuinguruan, aipatutako azken indarkeria *terrorista* terminoari lotu zaio, gutxienez, 1977ko urtarrilaren 27tik, Europako estatu gehienek Estrasburgon Terrorismoaren Errepresiorako Hitzarmen Europarra sinatu zuten egunetik, hain zuzen ere²—; beraz, diskurtso horretan sakontzeak erakusten digu: batetik, gizaki zein talde politikoen eraikuntza mentalean duen garrantzi berezia (Gadamer, 1994; Van Dijk, 2004); bestetik, estatuak —berdin du izaera demokratikoa izan nahiz ez izan— justifikatzen dutela beren indarkeria erantzun gisa —hau da, haien jarduera koertzitiboa indarkeria terroristaren ondorioa izango litzateke—. Historiografiaren alde handia bat dator aipatutako ikuspuntuarekin.

Kontuan izanik aurreko paragrafoan aipatutakoa eta egoera historiografikoa³, lan honen helburua da arreta berezia eskaintzea Estatuaren indarkeria politikoari; horrela, frankismo berantiarren diktadurak zein geroko estatu demokratikoak erabili zituzten jardunbideak eta diskurtsoa argituko ditugu, baita horietan izandako jarraipenak eta aldaketak ere trantsizioaren garaian. Hain zuzen, etorkizuneko demokrazien oinarriak eta joerak ezartzen diren garai garrantzitsu hartan.

Azkenik, lan hau, neurri handi batez, bigarren mailako iturrietan oinarritzen den arren, Gorte Nagusietako lehenengo mailako iturria ere kontuan hartu izan da

1. Ikusi emandako aipamen bibliografikoetan gaiari buruz esaten dutena Max Weber eta Pierre Bourdieu egileek.

2. Ikusi: file:///C:/Users/Usuario/AppData/Local/Temp/RIE_004_002_291.pdf

3. Historiografiak berebiziko arreta eskaini dio indarkeria politiko inkonformistari, bereziki, ETaren indarkeriari —aipatzekoa da erakunde horri eskaini zaion bibliografia handia—. Aldiz, ezer gutxi idatzi da Estatuaren indarkeria politikoari buruz. Neurri batez, iturriei heltzeko zailtasunek arrazoi dezakete hutsune historiografikoa —gogoratu beharra dago, egun, iturri gehienek desklasifikatu gabe jarraitzen dutela—.

demokraziaren garaiko atalean sakontzeko. Erakunde horretan, Gobernuko alderdiko zenbat kidek jarduera armatuaren⁴ gaiaren harira egindako hainbat adierazpen jaso dira. Legealdi Eratzailean zehar (1977-1979), Unión de Centro Democrático —UCD— alderdiaren ordezkariak luze aritu ziren aipatutako gaiari buruz oposizioko senatari zein diputatuekin izandako eztabaidetan. Horrela, iturri horrek balio handia dauka lan honetarako: batetik, UCDren gobernuko zenbait kide frankismoaren garaian ere goi-karguak izan zirelako (Angosto, 2017)⁵ eta, beraz, horrek Estatuko politikak jarduera armatuaren aurka izandako jarraipenak zein aldaketak zehazten lagunduko luke; bestetik, legebiltzarretan egindako diskurtsoek garrantzi berezia hartzen baitute —ezin da ukatu ganbara legegilean talde oso baten izenez esaten denak sinesgarritasun handia hartzen duela jendartean (Hymes, 1972)⁶—.

2. Aurkaria akabatuz desagertu: erregimen frankista berantiarra jarduera armatuaren aurka

Atal honen izenburuak aipamen berezia egiten dio Pau Casanellas historiagilearen hurrengo lanari: *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977* (2014). Jorratzen ari garen gairako, aipatutako lana erreferentziala izateaz gain, oso adierazgarria da, bere izenburuak aurreratzen baitu frankismo berantiarra ezarritako politika. Hain zuzen, erregimenak jarduera armatuari aurre egiteko erabilitako estrategia guztiz gerrazalea izan zen, eta bi esparrutan garatu zen: jardunbideak eta diskurtsoa.

Aurreko paragrafoan aipatutakoaren adibidea da 1971n agertutako *Subertsioaren Liburu Gorria —Libro Rojo de la Subversión—* delakoa. Zerbitzu sekretuko agente batzuek idatzi eta Luis Carrero Blanco almiranteak zuzendutako erregimenaren barneko dokumentu horrek aurreikusitako: batetik, Euskal Herrian bizi zen egoera «gerra»koa zela; bestetik, ETA «gerrilla-armada txiki bat» zela (Casanellas, 2014: 98-99). Hizkuntzak bere mugak gainditu zituen, eta jardunbideen esparrua hartu zuen; ez zen harritzekoa izan, kontuan izanda makiaren errepresioan eskarmentua zuen erregimen bati buruz ari zela (Casanellas, 2014: 63). Indar polizialek ETAko adar ezberdinetako militanteei aurre egin zieten tiroka, ondorioz, 22 etakide hil zituzten 1972 eta 1977 bitartean (Casanellas, 2013: 46). Garai berean, ETAko adar ezberdinek 35 uniformedun hil zituzten —horien artean: José Díaz eta Eloy García udaltzainak; eta Luis Carrero almirantea eta Gobernuko presidentea (ABC, d. g.)—.

Dena den, indar polizialak ez ziren disidentzia armatu edo ez-armatuaren aurka egin zuten bakarrik. Lan horretan, erregimenak talde parapolizialak ere erabili zituen (frankismo berantiarren garaian sortu ziren arren, trantsizioaren garaian ere protagonismo izan zuten), adibidez: Guerrilleros de Cristo Rey, Batallón Vasco Español —BVE—, Alianza Apostólica Anticomunista —AAA edo Tripe A—

4. Aipatutako Terrorismoaren Errepresiorako Hitzarmen Europarrean adostutako ildoari egokitu nahian, jarduera armatuari buruz baino terrorismoari buruz hitz egiten zuten hautetsiek, kontraesanetan erori ziren arren. Azken finean, zaila zen izaera politikoa zuen zerbaiti izaera hori ukatu nahi izatea.

5. Ikusi aipatutako aipamen bibliografikoa politikari horietako batzuen biografia politikoari buruz jakiteko.

6. Dell Hymes egileak agerian uzten du aipatutako lanean diskurtsoaren eta agertokiaren artean dagoen harreman garrantzitsua.

eta Antiterrorismo ETA —ATE—. Hasieratik, gertakari ugariak agerian utzi zuten muturreko talde frankista horien eta indar polizialen arteko harreman zuzena (Casanellas, 2014: 183-184). Franco hil eta demokratikotzat hartu ziren lehenengo hauteskundeak egin arte —1975 eta 1977 bitartean—, hain zuzen, bereziki gatazkatsua izan zen garai hartan —ohikoak ziren kaleko liskarrak manifestari ezkertiarren eta talde parapolizial zein indar polizialen artean—, elkarrekin aritu ziren manifestari ezkertiarren kaleko errepresioan. Esaten dugunaren adibideak dira Madrilan —garaiko indarkeriaren agertoki garrantzitsuena— izandako hurrengo gertakariak: batetik, 1976ko irailaren 27an, Guerrilleros de Cristo Rey talde parapolizialeko kideek Carlos González ikaslea hil zuten hiriburuaren erdialdean izandako amnistiaren eta 1975eko irailaren 27an fusilatutakoen aldeko manifestazioa erreprimitu zutenean poliziarekin batera (Wilhelmi, 2018: 136); bestetik, 1977ko urtarrilaren 23an, Triple A talde parapolizialaren komando batek Arturo Ruiz, 19 urteko gaztea eta Langile Komisioak sindikatuko kidea, hil zuen polizia manifestazio bat sakabanatzen ari zen bitartean. Azken gertakari horren egileek aitortu zuten «Polizia eta Guardia Zibilaren informazio-zerbitzuekin harremana zutela nahiz kolaboratzen zutela» (Wilhelmi, 2018: 142).

Nolanahi ere, frankismo berantiarren garaian —1968 eta 1977 bitartean—, 100 bat pertsona hil ziren ekintza parapolizial zein polizialean; hain zuzen, erakunde armatuetan militatzen ez ziren 70 bat pertsona hil ziren. Garai berean, erakunde armatuek 81 pertsona hil zituzten; gehienak uniformedunak —azpimarratzekoa da ETAREN adar ezberdinei 59 hildako egozten zaizkiela, horietako 39 uniformedunak (ABC, d. g.; Casanellas, 2014: 45-46)⁷. Agian, hori izan zen gatazka sozializatu izanaren ondorio makabroena, baina ez bakarra. Ikusitako arlo estrajudizialari judiziala gehitu behar zaio: 1968 eta 1977 bitartean, erregimen frankistak erakunde antifrankista armatuetako sei kide fusilatu edo garrotean hil zituen epaitu ondoren (Casanella, 2014: 290); horrez gain, 1956 eta 1975 bitartean, zortzi salbuespen-egoera agindu zituen (Casanellas, 2014: 14-15). Baliabide juridiko horrek bereizi gabeko atxilotetak ekarri zituen. Kasu gehienetan, atxilotuek ez zuten harremanik erakunde armatuekin, eta, polizia-etxeetan zenbait ordu edo egun eman ondoren, askatu zituzten. Halere, atxilotu gehienek tratu txarrak pairatu zituzten (Casanellas, 2014: 187-188). Giza eskubideak sistematikoki eta bereizi gabe urratzeak zenbait ondorio ekarri zizkion erregimenari: batetik, Europatik errieta egin zioten —adibidez, Vatikanotik—; bestetik, barneko oposizioa handitu zen —azken finean, «arbitrarioki atxilotutako pertsona bakoitza frankismoaren aurkako militante bihur zitekeen» (Casanellas, 2014: 187)—.

Aipatutako ondorioak ekidin nahian-edo, erregimenak Europako zenbait herrialderen adibideari jarraitzea erabaki zuela dirudi, eta baliabide juridiko leunagoak erabiltzeari ekin zion. XX. mendearen 70eko hamarkadan, demokrazia europarrek jarduera armatuaren aurka egin zuten legealdi antiterrorista delakoaren bidez; beraz, hori izan liteke erregimenak hartutako bidea —horren adibide dira hurrengo legeak: «terrorismo eta bidelapurreriarako errepresioari buruzko» 1968ko abuztuaren 16ko Lege Dekretua; 36/1971, 42/1971, 44/1971 legeak; 1973an berritutako kode penala; edota 1975eko abuztuaren 26ko «terrorismoaren aurreikuspeneko» Legea—.

7. Egileak egindako zenbaketa kontuan izanda emandako bi aipamen bibliografikoetan agertutako datuak.

Diego López Garrido egilearen iritziz, aipatutako joeraren eraginez hainbat herrialde europarrek salbuespena egonkortu zuten «larrialdiko zuzenbidea» deritzonaren bidez; hau da, XX. mendearen bukaeran, Mendebaldeko demokraziek «estrategia juridiko-errepresiboa» lehenetsi zuten indarkeria protestariaren aurka egiteko (Baby, 2012: 321). Nolanahi ere, politika horren ondorioa izan zen erregimenak salbuespen-egoera bakarra agindu zuela 1971 eta 1975 bitartean; zehazki, diktadorea hil zen urte berean izan zen. Halere, datu horrek ez du esan nahi legedi antiterroristak salbuespen-egoerek normalizatutako gehiegikeriekin bukatu zuenik; aitzitik, mekanismo juridiko horrek leunago zirudien arren, jarraitu zuen disidentzia politikoa erreprimitzen salbuespen-egoerek egiten zuten antzeko parametroen pean: bereizi gabeko atxiloketak (Casanelas, 2014: 264), gehiegikeria polizialak —adibide gordinena da erregimenak atxilotuen torturari heldu ziola sistematikoki (Casanelas, 2014: 188; Wilhelmi, 2018: 148)—, edota neurriak gabeko mehatxua —lanera joan ezean, legedi antiterrorista ezarriko zitzaizela mehatxu egin zien erregimenak 1975eko grebalariei (Casanelas, 2014: 204)—.

Arlo juridikoaren ikur bihurtu zen legedi antiterroristarekin batera, arlo dialektiko-kulturala ere antolatu zen. Azken hori berria ez zela —frankismo berantiarren garai osoko zentsura ezarri zen martxoaren 18ko «prentsa eta inprenta»ren 14/1966 Legeari helduz— eta bere helburu nagusiari eusten ziola —jendarteari eragitea disidentzia apaltzeko— egia bada ere, une hartan, ezaugarri berriak bereganatu zituen. Hasieratik, erregimenak zentsurari eta kontrapropagandari heldu zien —adibidez, propaganda beltzaren bidez (Casanelas, 2014: 61)—, baina legedi antiterroristari esker, bide berri bat aurkitu zuen iritzi publikoa bideratzen saiatzeko. Esate baterako, erregimenak erabili zuen «terrorismoaren aurreikuspeneko» abuztuaren 26ko 10/1975 Lege Dekretua komunikabideetan ager zitekeen «legedi antiterroristaren edukari buruzko edozein iritzi kritiko» zigortzeko (Casanelas, 2014: 204-205). Erregimena «militanteen guneak isolatu eta banatzearekin arduratuta zegoenez [...] garrantzi berezia ematen zitzaizen komunikabideei» (Casanelas, 2014: 60); azken finean, erregimenak 1969ko Udaberri Egitasmoan aipatu zuzenez, helburua zen «militanteen guneak zikindu eta banan litzakeen politika informatiboan sakontzea haien desagerpena lortzeko» (Casanelas, 2014: 62). Bestalde, legedi antiterrorista baliatuz, erregimenak ezker iraultzaileko militanteen bidegabeko atxiloketari ekin zion. 1977ko lehenengo hiru hilabeteetan, 4.733 atxilotu egon ziren; kasu gehienetan, atxiloketa horien arrazoiak izan ziren erakunde ezkertiarretako militante izatea edo lan propagandistikoak egitea (Wilhelmi, 2018: 358). Jarraitutako estrategia izan zen «ekintzaileak gaizkile arruntzat hartzea» oposizio inkonformista kriminalizatuz (Casanelas, 2014: 61).

Ezbairik gabe, terrorismoaren gaia gero eta garrantzitsuagoa izan zen erregime-narentzat, eta horrek esparru diskurtsibo zein propagandistikoari eragin zien. Horren adierazle izan daiteke Francok egindako diskurtsoa 1974ko Gabonetan. Lehenengo aldiz, nazioko zein nazioarteko testuinguruei aipamena eginez, *Caudillo*ak terrorismoaren gaiari buruz hitz egin zuen⁸. Gertakari horrek agerian uzten du diktadurak ez ziola bere indarkeria legitimatzeari uko egin, nazioko zein nazioarteko mailetako gero eta eremu zabalagoetan deslegitimatua zegoela ondo

8. Ikusi Francoren diskurtsoa hurrengo estekan: <<http://www.generalisimofranco.com/Discursos/mensajes/00023.htm>> (Kontsulta: 2021-04-07).

zekien arren. Alferrik baina, bederatzir hilabete beranduago, erregimenak, beste behin, bere izaera gerrazalea erakutsi zuen: batetik, salbuespen-egoera agindu zuen Bizkaia eta Gipuzkoarentzat —aipatu den bezala, agindu zen bakarria 1971 eta 1975 bitartean—; bestetik, bost preso fusilatu zituen (ETApm-ko bi eta FRAPeko hiru).

Franco hil ondoren, eta diktaduraren amaiera arte, erregimenaren zenbait goikarguk terrorismoaren aurkako gurutzadari eutsi zioten diskurtso gerrazalearen bidez. Adibidez, 1975 eta 1977 bitarteko txostenetan, fiskal orokorrek «terrorismoak eragiten zuen arriskua» salatu zuten, eta «epidemia», «plaga» zein «infekzio» terminoak⁹ erabili zituzten gaiari buruz hitz egiteko (Baby, 2012: 297). Bestalde, 1976an, uneko Herrizaintzako ministroak, Rodolfo Martín Villak, «guk ez badugu ETA amaitzen, ETAk gu amaituko gaitu» adierazi zuen; eta aurreko kargudunak, Manuel Fraga Iribarnek, lau haizetara zabaldu zuen «edozein ondorio ekar zezakeen terrorismoaren aurkako gerra» egiteko asmoa zuela (Casanelas, 2014: 247).

3. Lehenengo estatu demokratikoa: jarraipenak zein aldaketak

1977ko ekainean, aukera politiko guztiak legalizatuak ez zeuden arren, frankismoaren ondoren demokratikotzat hartu ziren lehenengo hauteskundeak egin ziren. Bozka gehien jaso zuen aukerak gobernua osatu zuen, hau da, zentro-eskuineko UCD koalizioak. Kideen ezaugarriari erreparatuz, koalizioa plurala zen; besteak beste, monarkikoak, liberalak, sozialdemokratak, kristau-demokratak eta falangista erreformatzaileak elkartu ziren koalizioan (González, 2000: 231). Gainera, zenbait kide goi-karguak izan ziren diktaduraren garaian —adibidez, Rodolfo Martín Villa (Angosto, 2017: 273-275)—. Hauteskundeen beste ondorio bat izan zen Legealdi Eratzailearen (1977-1979) hasiera Gorte Nagusietan. Gobernukide eta oposizioko hautetsiak elkartu ziren legebiltzarrean, eta batzuek zein besteek iritzia eman zuten jarduera armatuari buruz.

Bitartean, kaleko egoera aldatu zen: 1975etik 1977ra, gatazkak muga jo zuen; 1977tik 1979ra, proiektu demokratikoa egonkortu ahala (Beorlegui, 2017)¹⁰ giza ondorioak baino areago ondorio materialak izan zituzten «intentsitate baxuko indarkeriak» txikitu ziren —trantsizioaren bukaeran ia desagertu ziren— (Baby, 2012: 166-167). Aldiz, 1977tik aurrera, «indarkerien espezializazioa» gertatu zen; hau da, Sophie Baby historiagilearen arabera, jarduera armatuak garrantzi handiago bereganatu zuen. Horrek hildako gehiago ekarri zituen: trantsizioaren garaiko urte odoltsuetan —1978, 1979 eta 1980, hurrenez hurren— 453 hildako egon ziren —indar polizialek eragindako hildakoak kontuan hartu gabe—. Protagonisten harira, haien ahalmen hilgarria azpimarratzekoa da: ETako adarrek hildakoen % 72ren ardura izan zuten; eskuin muturreko taldeek % 13rena; eta GRAPOk hildakoen % 10 bat eragin zuen (Baby, 2012: 162, 191-192).

Testuinguru horretan, Óscar Alzaga Villaamil UCDko diputatuak aldarrikatu zuen governuak «ekintza terrorista horien aurka egiteko obligazio morala» zuela

9. Erabilitako terminoengatik, terrorismoa errotik atera behar zela ohartarazi zuten fiskal orokorrek.

10. David Beorlegui historiagileak ondorioztatu zuen sistema demokratikoaren egonkortasunak —Moncloako Itunak, Konstituzioa...— handitu zuela diktadurarekin apurtzeko aldarrikatzen zutenean desengainua, eta horrek mobilizazioen jaitsiera ekarri zuen.

(Diario de Sesiones del Congreso —DSC—, 1978d: 5.353). Ildo beretik, Juana Arce Molina UCDko senatariak hurrengo hitzekin adierazi zuen Gobernuaren ikuspuntua: «demokraziak ez badu terrorismoarekin amaitzen, terrorismoak demokrazia amaituko du» (Diario de Sesiones del Senado —DSS—, 1978a: 1.523). Hain zuzen, demokraziaren lehenengo gobernuak frankismoaren herentzia zen ikuspuntu gerrazaleari heltzen jarraitu zuen, eta horrek ekarri zuen frankismoaren arlo berdinak erabiltzen jarraitzea eta lehenetasun berarekin jarraitzea. Hori bai, dagoeneko helburua ez zen diktadura salbatzea, baizik eta demokrazia, eta horrek zenbait aldaketa ekarri zituen. Batetik, gatazkaren ikuspuntu dikotomikoa birplanteatu zen —hau da, *guk* demokratok eta *haiak* terroristek elkarren aurka— (Del Real, 2015)¹¹, eta, horretan, oposizioaren alderdi nagusia ere bat zetorren Gobernuarekin —horrela utzi zuten agerian Enrique Múgica Herzog PSOeko diputatuaren hitzek: «Estatu demokratiko baten eta terrorismoaren arteko borrokak terrorismoaren amaiera dakar beti, baita estatua demokratikoaren garaipena ere» (DSC, 1978c: 5.319)—. Bestetik, termino gerrazaleak eta demokratikoak uztartzen zituen diskurtso berri bat agertu zen. Azken honen adibide dira Rodolfo Martín Villaren hitzak «talde armatuek egindako delituen aurkako neurriak» Lege-proiektuaren harira izandako eztabaidan: barne-ministroak aurkeztu zuen «Estatuaren, demokraziaren, herritarren askatasunaren, ordenamendu juridikoaren, bizitzarako eskubidearen, elkarbizitzaren eta herritarren bakearen babesa» helburutzat zuen legea «terrorismoaren aurka borrokatzeko disuasio-arma» gisa (DSC, 1978b: 4.688). Oposizioak ere horrelako diskurtsoak egin zituen; adibidez, Juan María Vidarte de Ugartek, Euskal Senatarien Talde Parlamentarioaren ordezkariak, «banda armatuek egindako delituen aurkako neurriak» eztabaidaren harira hurrengoa esan zuen:

Ez dut berriz esango delitu horien aurka egin behar denik, batez ere, desarme ideologikoaren bidez, kausen aurka eginez [...]; desarme logistikoaren bidez, horien aurka egiten duen herrialdearen baino askoz handiagoa den lurralde maila baten arabera gaia planteatuz [...], eta desarme taktiko baten bidez, gobernuari zein polizia horien aurka egiteko baliabide egokiak eskainiz; eta, azken errekurtso gisa, giza eskubide zein askatasunak urratzen dituen desarme juridiko baten bidez (DSS, 1978b: 2.837-2.838).

Testuinguru horretan, komunikabideek ere hizkuntza gerrazalea bereganatu zuten; «Iparraldeko gerra»ri buruz —Euskal Herrian bizi zen egoerari aipamena eginez— orri asko idatzi eta telesaio asko egin zituzten (Baby, 2012: 314).

Bestalde, 1977 eta 1979 bitartean, indar polizialek 79 pertsona hil zituzten (Wilhelmi, 2018: 151) —gehienak zibilak (Baby, 2012: 349)—; aldiz, ETaren adarrek 175 eta GRAPOk 50 (Baby, 2012: 120, 147) —gehienak uniformedunak (Baby, 2012: 124, 154)—. Erregimenaz aldatu zen arren, agintari politikoez jarraitu zuten ordena publikoa (DSC, 1978a: 4.447-4.448)¹² ikuspuntu autoritario batetik

11. Ikuspuntu dikotomiko horrek Carl Schmitten etsai-lagun dualtasunera eramaten gaitu.

12. 1977-1979 bitartean, trantsizio politikoaren garaia izateaz gain, terminologiaren esparrurako ere trantsizio-garaia izan zen. Diputatu eta senatariak *ordena publikoa* edo *segurtasun publikoa* terminoak berdin-berdin erabili zituzten egindako diskurtsoetan. Lehenengo terminoa diktadura garaian erabili zen; aldiz, bigarrena, demokraziaren garairako egokiagoa izanda, pixkanaka-pixkanaka egonkortu zen lehenengo baztertu arte. Antzeko gertatu zen *Ordena Publikoaren Indarrak* eta (*Estatuaren*) *Segurtasun Gorputzak* (eta *Indarrak*) terminoekin. Gertatu zen Rodolfo Martín Villa barne-ministroak aurreko lerroetan aipatutako termino guztiak nahastu zituela diskurtso berean —ikus emandako aipamena—.

ulertzen, eta horrek baldintzatu zuen indar polizialen jokaera (Baby, 2012: 254). Aukera izanez gero, garaiko barne-ministroak indarkeria polizialen gehiegikeriak justifikatzen zituen. Horrela egin zuen 1978ko sanferminetan izandako istiluen ondorioz German Rodriguez manifestariaren hilketaren harira; telebista publikoan —Rtve-n— emandako prentsaurreko hartan, «azken finean, gurea akatsak izango dira; bestea krimenak dira» esan zuen¹³. 1978ko uztailaren 18ko osoko bilkuran, German Rodriguez eta José Ignacio Barandiaranen¹⁴ hilketei buruz izandako eztabaidaren harira, berriz justifikatu zuen poliziaren jokaera; kasu hartan esan zuen indar polizialak «mehatxu edo erasoen biktimak zirela», eta, ondorioz, «sosegua zerbitzari izan behar ziren horiek sosegua galtzen dutela» (DSC, 1978a: 4.445).

Garaiko agintariek ordena publikoari buruz zuten ikuspuntu autoritarioa agerian uzten duen beste nabaritasun bat da frankismo berantiarreko errepresioa zuzendu zuten agintari polizialek zein militarrek betekizun horretan jarraitu zutela trantsizioaren garaian. Demokraziaren aldekoa eta marjinala zen Poliziaren Batasun Sindikalak¹⁵ salatu zuen «UCDren gobernu demokratikoak izendatutako goi-kargu polizial gehienak diktaduraren Polizia Politikotik zetozela» eta Suárez presidentearen gobernuak «Brigada Politiko-sozialeko kide ohien —horien artean ultraeskuindarrak— sustapen pertsonalaren politika mantentzearen alde» egiten zuela (Wilhelmi, 2018: 242). Oposizioak ere errealitate hori salatu zuen; adibidez, Santiago Carrillok, garaiko Espainiako Alderdi Komunistaren¹⁶ buruzagiak, poliziaren gehiegikeriak frankismoaren herentzia zirela salatu zuen —adierazpen horiek 1978an egin zituen, aipatutako German Rodríguez eta José Ignacio Barandiaranen hilketen harira—. Carrillok esandakoari gehitu zion diktadurak «Ordena Publikoaren Indarrei emandako formakuntza sistema demokratiko berriarekin bateraezina» zela, eta, beraz, Gobernuari leporatu zion presio handiagorik ez egitea indar polizialek «demokraziaren oinarriak bereganatzeko eta sakonki barneratzeko» (DSC, 1978a: 4.453-4.454).

Frankismo berantiarren garaian bezala, ultraeskuineko talde parapolizialen jarduera indar polizialenarekin uztartu zen 1977 eta 1979 bitartean. Aipatutako taldeek Gobernuarekin zein poliziarekin izan zuten harreman-maila bereiztea komenigarria den arren —Xavier Casals (2016: 369) historiagileak pentsatzen du ultraeskuineko indarkeriaren ezaugarri nagusia «bat-batekotasuna» izan zela eta «zaila dela bereiztea Estatuaren segurtasun-mailek egin zuten [ultraeskuineko] kideen behin-behineko erabilera»—, Gonzalo Wilhelmi (2018: 150) historiagileak proposatzen du talde parapolizial zein polizialen indarkeria batera aztertzea —berdin dio «Estatuaren terrorismoa» edo «ultraeskuineko terrorismoa» izan—; azken finean, «horiek guztiek Gobernuarena zen estrategiaren alde egiten zuten». Horrela erakutsiko luke 1977ko azaroan idatzitako eta Bartzelonako Polizia Buruzagitzari egotzitako dokumentu batek, horren arabera, «poliziek aktiboan zeuden eskuin

13. Ikusi prentsaurrekoaren pasartea hurrengo estekan: <<https://www.youtube.com/watch?v=pjWERMQbgSk>>.

14. 1978ko uztailaren 11n, Donostian ere manifestaldi bat antolatu zen German Rodríguez hilketari salatzeko. Manifestaldi horri lotutako istiluen harira, poliziak José Ignacio Barandiaran 18 urteko gaztea tiroz hil zuen.

15. Unión Sindical de Policía —USP—.

16. Partido Comunista de España —PCE—.

muturreko gune gehienak kontrolpean zeuzkaten» (Casanelas, 2014: 277). Izango dena izango dela, dagoeneko aipatutako frankismo berantiarraren garaiko talde parapolizialei hainbat siglaren pean agertutako beste batzuk gehitu zitzaizkien (Baby, 2012: 77). Horrela, 1977 eta 1979 bitartean, ATE, BVE, Triple A eta Fuerza Nueva —FN— taldeek 34 pertsona hil zituzten (Wilhelmi, 2018: 151) —gehienak zibilak (Wilhelmi, 2018: 86)—.

Bestalde, ez bakarrik indar polizialekin, esparru politikoarekin ere harremana izan zuten talde parapolizialek. Horrela utzi zuen agerian *El Pápus* aldizkari satirikoaren aurka egindako erasoak Bartzelonan. 1977ko irailaren 20an izandako eraso horrek hildako bat uzteaz gain —eraikinaren atezaina—, «argitara eman zuen ultraeskuineko guneen eta Lleidako Gobernu Zibilaren arteko ustezko harremana» (Casanelas, 2014: 275). Bestela, Legealdi Eratzaileko diputatu zein senatariek oso gutxitan egin zioten aipamenik ultraeskuinaren indarkeriari. Horrek agerian utzi zuen hautetsiek indarkeria politikoari buruz zuten ikuspuntua: egindako diskurtsoetan, indarkeria politikoari buruz askotan hitz egin zuten arren, gehienbat gune inkonformistekin lotu zuten¹⁷. Gobernuaren kasurako, Martín Villa barne-ministroak ordena publikoaren gaiaren harira legebiltzarrean izandako parte-hartzeak adierazgarriak izan ziren. 1978ko azaroaren 8 hartan, terrorismoaren gaiari buruz hitz egin zuen aldi guztietan ez zion inolako aipamenik egin indarkeria ultraeskuindarrari (DSC, 1978c: 5.270-5.335).

Arlo juridikoari dagokionez, erregimen demokratiko berriak frankismo berantiarraren garaian hasitako ildoari eusten jarraitu zuen: batetik, legedi antiterrorista are gehiago garatu zelako —horren adibide dira «talde edo banda armatuek egindako delituen aurkako neurriei buruzko» ekainaren 30eko 21/1978 Errege Dekretua eta «terrorismoaren gairako Kode Penalaren aldatetari buruzko» abenduaren 28ko 82/1978 Legea—; bestetik, baztertu zirelako salbuespen-egoerak, irudi juridiko leunagoak lehenesteko —halere, 1978ko Konstituzioak 55. eta 116. artikuluetan salbuespen-egoera agintzeko, erabiltzeko eta mugatzeko aukerak zein mekanismoak aurreikusi zituen; eta, 1977tik 1978ra bitartean, epaiketa militarrek 272 zibil zigortu zituzten delitu politikoengatik (Casanelas, 2014: 259)—. Irudi juridiko hori hainbatetan erabili zuen erregimenarentzat ardurazko betekizunak izan zituen arren, 1978ko uztailaren 27an egindako osoko bilkuran, Martín Villak azaldu zuen zergatik baztertzeko salbuespen-egoera une hartan. Barne-ministroaren iritziz, salbuespen-egoera mantentzeak adere ematen zion oposizioari bi arrazoi nagusirengatik: batetik, salbuespen-egoerak agindu izanak «terrorismoaren tokiko fenomenoaren benetako iraultza armatua izango balitz bezala ulertzera eraman zuelako»; bestetik, salbuespen-egoerak ekarri zuelako neurri koertzitiboak «guztiz edo orokorki ezartzea» —hau da, jendarteari bereizi gabe ezartzea (DSC, 1978b: 4.687-4.688)—.

Legealdi antiterroristaren gaiarekin jarraituz, azpimarratu behar da prozesu legegileak eztabaida sortu zuela Gorte Nagusietan. Oposizioaren taldeek Gober-

17. Zenbait egilek —adibidez, Sophie Baby eta Gonzalo Wilhelmi— *erradikal, protestari, ihardukitzaile* edo *iraultzaile* terminoak baliatu dituzte indarkeria politikoaren erabili zuten talde ezkertiarren zehazteko. Aldiz, idazten duen egilearentzat aurreko kalifikatzaileak baino egokiagoa izango litzateke *inkonformista* terminoa, Espainiako Errege Akademiaren —RAE— hiztegiak eskaintzen duen esanahiagatik.

nuari galdetu zioten hartutako legediaren oinarriari buruz; adibidez, Euskadiko Ezkerra alderdiaren ordezkariak, Juan María Bandresek, leporatu zion hartzen ari zen legealdi antiterrorista «etengabeko eta estalitako salbuespen-egoera» zela, eta konponbide politikoak hartzera premia zuen —egun batzuk lehenago, Eusko Alderdi Jeltzalearen ordezkariak, Jose Ángel Cuerdak, berdina egin zuen (DSC, 1978b: 46.895)—, haren ustez, «banda armatuak ez direlako desagertzen errepresioaren bidez» (DSS, 1978a: 1.525). Baina sozialisten taldeko senatariaren parte-hartzea gordinagoa izan zen; Joaquín Navaroren iritziz, «hain hurbil diren aldi baterako lege berezi horien ondorioz, demokraziaren oinarrien eta babesen aurka egin genezake jakin gabe». Horrez gain, «terrorismoaren aurka borrokatzeko» legeak «jardunbide terroristengandik oso hurbil» zeudela esan zuen (DSS, 1978b: 2.853).

Aldiz, Martín Villaren iritzia oso kontrakoa zen. Barne-ministroak, legedi antiterroristaren pean aurreikusten ziren neurriei salbuespeneko zein ohiz kanpoko izaera onartzen zien arren, ukatu zuen «estalitako salbuespen-egoera» zenik, eta bere ezarpena babestu zuen, salbuespen-egoeraren pean ez bezala, bakarrik eragiten zielako «legean aurreikusitako delituei, jarrerei zein pertsoneri» (DSC, 1978b: 4.687-4.688). Halere, legedi antiterrorista ezartzearen ondorioz, 1.500 ustezko terrorista baino gehiago atxilotu zituzten 1977 eta 1979 bitartean (Baby, 2012: 306). Epe horretarako datu gehiagorik ez dugun arren, legedia arinkeriaz ezarri zela suma daiteke —adibidez, legediak ez zielako bakarrik talde armatuetako kideei eragin—; aldiz, 1979 eta 1982 bitarteko datuek ez lukete zalantzarako aukerarik utziko. 1979ko azarotik 1982ko ekainera bitartean, 3.772 pertsona atxilotu zituzten —hain zuzen, hilero 124 atxilotu, urtero 1.484)—; horietako % 69 aske utzi zituzten haien aurka eginbide judizialak ireki baino lehen —giza eskubideen babeserako zenbait erakunderen arabera, eginbide judizialak ireki zitzaizkien atxilotuen kopurua ez zen % 10era ailegatu—. Edonola ere, atxilotutakoen %44ri atxiloaldia luzatu zitzaion legeak aurreikusten zuen 72 orduetatik harago; horrek polizia-etxeetan pairatutako tratu txarrak ekarri zituen (Albin, 2018)¹⁸. Euskal Herrian —garaiko indarkeria politikoaren erdigunean—, atxilotutakoen % 57k ez zuen harremanik ETAko adarrekin. Beraz, aurreko datu guztiek agerian uzten dute legedi antiterroristaren pean atxilotutako gehienak «besteak» direlakoak izan zirela; hain zuzen, erakunde terroristekin harreman zuzenik ez zuten pertsonak (Baby, 2012: 314-317). Nolabait, egoera horrek frankismoaren garaiko «errepresioaren sozializazioa» mantendu zuen jendea izutzeko eta, horrela, bere disidentzia-ahalmena deuseztatzeko (Casanelas, 2014: 127, 202).

Bestalde, frankismo berantiarraren garaian gertatu zen bezala, 1977 eta 1979 bitartean ezarritako legedi antiterroristak zentsura handiagoa ekarri zuen. Martxoaren 18ko «prentsa zein inprentari buruzko» 14/1966 Legeak zentsura arautu zuen «adierazpen-askatasunari buruzko» apirilaren 1eko 24/1977 Errege Dekretua agertu zen arte. Azken horrek adierazpen-askatasuna onartzen zuen arren, lan grafikoak

18. Agian, kasu ezagunena Joxe Arregi Izagirrerena da, guztiz ubeldua zegoen bere gorputzaren argazkiak argitara eman ziren-eta. Polizia Nazionalak ETA militarreko kide hori gogor torturatu zuen bederatzi egunez Madrilgo Segurtasun Zuzendaritza Orokorreko egoitzan. Tortura horien ondorioz, Joxe Arregi Carabanchelgo espetxeko ospitalean hil zen 1981eko otsailaren 13an. Ikusi emandako aipamen bibliografikoa.

edo soinudunak «bahitzeko» eskubidea ematen zion Administrazioari baldin eta lan horiek Espainiako batasunaren aurka egiten bazuten, Monarkiaren Instituzioari kalte egiten bazioten edo Indar Armatuaren izenari eta errespetuari eraso egiten bazieten (Boletín Oficial del Estado —BOE—, 1977: 7.928). 1978ko Konstituzioak adierazpen-askatasunaren eskubidea jaso zuen 20. artikuluan, baina ez zituen deuseztatu 24/1977 Errege Dekretuak aurreikusten zituen salbuespenak. Ondorioz, «muturreko eskuinak armadarekin, poliziarekin zein epaileekin izandako harremana eta Estatuaren terrorismoa ikertu zituzten kazetari»-en aurkako prozesuak hasi ziren (Wilhelmi, 2018: 346). Independentek edo oposiziokoak ziren kazetari eta agerkeriek bereziki pairatu zuten zentsura; 1977an, 434 prozesu hasi ziren horien aurka (Wilhelmi, 2018: 241). Barne-ministroak berak aipatutako jazarpena bultzatu zuen kongresuko tribunetatik, eta komunikabideei eskatu zien beren ardurapean har zitzaten adierazpen-askatasunaren eta informaziorako eskubidearen mugak:

Giza komunikabideei ere dagokie terrorismoaren aurkako borrokan duten ardura soziala onartzea. [...] Terrorismoaren apologia ez egitea edota kasurik ez egitea, haren ekintzak zein komunikatuak zabaltzea jendartearentzat dituen ondorio txarrak zabaltzea baita. Une honetan, komunikatu terroristei «Isiltasun Paktu» bat ezartzea beharrezkoa izango litzateke, hori izango bailitzateke ezinbestekoa den informazioaren zerbitzu publikoak egin lezakeen ekarpen zintzoena (DSC, 1978b: 4.688-4.689).

4. Ondorioak

Eratutako lehenengo estatu demokratikoak ahalik eta bitarteko gehien erabili zuen jarduera armatuaren aurka egiteko. Egia esan, frankismo berantiarraren garaiko joerarekin jarraitzea besterik ez zuen egin, bai jardunbideen aldetik —arlotu juridikoa, polizia eta parapolizia—, bai jardunbideak legitimatzen zituen diskurtsoaren aldetik —edonola ere, azpimarratu behar da Gobernuaren diskurtsoak izandako berrikuntza; hain zuzen, egoera berrira egokitu zen diskurtso horrek hizkuntza gerrazalea eta demokratikoa uztartu zituen—. Santiago Carrillok, buruzagi komunistak, Euskal Herrian bizi zen egoeraren harira egindako adierazpen batzuek laburtzen dute esan nahi dena:

Euskal Herrian, ikusten ari garen indarkeriaren dialektika hori ez da berria; izan ere, aurreko erregimenaren herentzia da. Euskaldun askorentzat egoera ez da guztiz aldatu Euskal Herrian, eta ez da arraroa aspaldiko pentsaerak denboran luzatzea, herrian zenbait aldaketa erreala gertatu diren arren. Horretan, Gobernuak ardura zuzena dauka; ez da bereziki barne-ministroaren ardura, baizik eta, orokorrean, Gobernuarena da.

Itxuragatik, nik pentsatzen dut Gobernuak aurre egiten diola terrorismoari, Euskal Herrian dagoen indarkeriari, indarkeriaren bidez, eta ez egoera hori gainditzeko beharrezkoak egiten diren baliabide politikoaren bidez (DSC, 1978a: 4.454).

Ez zen falta izan tribunetatik salatu zuena «Estatuaren maila guztietan sartuta» zegoen «indarkeriaren azpikultura» (DSC, 1978d: 5.350-5.351). Horren ondorio gordinena izan zen negoziatzeari uko egiten zion kultura nagusitu zela demokraziaren garaian ere. Horren adibide dira Gabriel Cisneros Laborda diputatuaren hitzak ordena

publikoaren gaiari buruz izandako parte-hartzearen harira: UCDko ordezkariak esan zuen Gobernua tinko mantenduko zela, eta ez zuela «amore emango», «ezta itunik egingo ere hiltzaileekin» (DSC, 1978c: 5.322). Cisnerosen adierazpenek erantzun nahi izan zioten Manuel Fraga Iribarneri¹⁹: batetik, Alianza Popularreko buruzagiak leporatu ziolako Gobernuari dagoeneko «gera zibil larbatua» zena galtzen ari zela; bestetik, gogoratu ziolako Gobernuari «irabazteko» zuen «funtsezko betebeharra» (DSC, 1978c: 5.279).

Bukatzeko, aurretik esandakoaren azalpen gisa, Pau Casanellas historiagileak proposatzen duen ondorioa azpimarratzekoa da; horren iritziz, «zorigaitzoko politika [gerrazale] hura bultzatu zuten arrazoen artean aipatzekoa da Caudillo hil ondoren herria gidatu zutenen borondate demokratizatzailea zalantzakoa izan zela» (Casanellas, 2014: 278).

Fitxategiak

Boletín Oficial del Estado (1977), 87, 04-12.

Diario de Sesiones del Congreso de los Diputados (1978a), 114, 07-19.

— (1978b), 118, 07-27.

— (1978c), 133, 11-08.

— (1978d), 134, 11-09.

Diario de Sesiones del Senado (1978a), 38, 08-08.

— (1978b), 57, 09-22.

Bibliografia

ABC (d. g.): «ETA, medio siglo de terror», <<https://www.abc.es/especiales/eta/victimas/10.asp>> (Kontsulta: 2021-04-07).

Albin, Danilo (2018): «Los policías que torturaron hasta la muerte a Joxe Arregi nunca fueron apartados de sus cargos», *Público*, <<https://www.publico.es/politica/diatortura-policias-torturaron-muerte-joxe-arregiaptados-cargos.html>> (Kontsulta: 2021-04-07).

Angosto, Pedro L. (2017): *Diccionario del franquismo. Protagonistas y cómplices (1936-1978)*, Comares, Granada.

Baby, Sophie (2012): *Le Mythe de la transition pacifique. Violence et politique en Espagne (1975-1982)*, Casa de Velázquez, Madril.

Beorlegui, David (2017): *Transición y melancolía: la experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-1986)*, Postmetrópolis, Madril.

Casals, Xavier (2016): *La transición española. El voto ignorado de las armas*, Pasado y Presente, Bartzelona.

Casanellas, Pau (2013): «“Hasta el fin”. Cultura revolucionaria y práctica armada en la crisis del franquismo», *Ayer*, 92:4, 21-46.

19. Frankismoaren ondorengo eskuin setatienaren liderra beti zegoen negoziazioaren aurkako kultura sustatzeko prest.

- , (2014): *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977*, Catarata, Madril.
- Del Real, J. Alberto (2015): «La dualidad amigo-enemigo en el propio contexto de Carl Schmitt», *AFD*, 31, 173-202.
- Gadamer, Hans-Georg (1994): *Verdad y método II*, Sígueme, Salamanca.
- González, Pedro C, (2000): *Historia de las derechas españolas. De la ilustración a nuestros días*, Biblioteca Nueva, Madril.
- González-Fernández, Ángeles (2019): *Transiciones a la democracia en Portugal, Grecia y España*, Síntesis, Madril.
- Hymes, Dell H. (1972): «Models of the Interaction of Language and Social Life», in J.J. Gumperz eta Dell H. Hymes (ed.), *Directions in sociolinguistics. The ethnography of communication*, Basil Backwell, New York, 35-71.
- Hortonéda, Jeanine (2005): «Sécurité, territoire, population et Naissance de la biopolitique de Michel Foucault Contrechamp», *Empan*, 59:3, 61-70, <<https://www.cairn.info/revue-empan-2005-3-page-61.htm>> (Kontsulta: 2021-04-07).
- Vand Dijk, Teun A. (2004): «Text and context of parliamentary debates», in Paul Bayley (ed.), *Cross-cultural perspectives on parliamentary discourse. Discourse approaches to politics, society and culture*, John Benjamins Publishing Company, 339-372.
- Vézina, Nadège (2014): «Sur l'État», *Sociologie*, 3, <<http://journals.openedition.org/sociologie/2345>> (Kontsulta: 2021-04-07).
- Weber, Max (2007): *Politika, eta zientzia lanbide* (Pello Zabaleta, Itzul.), Klasikoak, Bilbo, <<https://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/?f=93>> (Kontsulta: 2021-04-07).
- Wilhelmi, Gonzalo (2018): *La izquierda radical en la Transición española*, Siglo XXI, Madril.

